


8

DIBULGAZIO
KOADERNOA



EMAKUME MIGRATZAILE LESBIANAK





AURKIBIDEA

● Aurkezpena	3
● Emakume migratzaileak Euskal Herrian	4
● Emakume migratzaile lesbianak Euskal Herrian	5
● Vanessa eta Lucy	9
● Fatima	10
● Rosalia	12

Data: 2011ko Urria

1. edizioa

Legezko erregistroa: BI-3012/2011

Egilea: Inmaculada Mujika Flores

Kontzeptua eta koordinazioa: ALDARTE – Sexu Askatasunerako Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa



C/Berastegi, 5-5º - 48001 BILBAO

Tel. 944 237 296

www.aldarte.org

aldarte@aldarte.org

Honakoek diruz lagunduta: BFA-DFB eta Emakunde



Bizkaiko Foru Aklundia
Diputación Foral de Bizkaia



EMAKUNDE
ASOCIACIÓN DE MUJERES
ASOCIATION OF WOMEN

Aurkezpena

ALDARTE –“Gay, lesbiana eta transexualen arretarako zentroa–” duela hamabost urte baino gehiago hasi zen LGTB populazioarekin lanean, eta, harrez gero, laguntzarako zein gizarteratze eta sentsibilizatorako baliabideak eskaintzea izan du zeregin nagusietako bat, gizarte osoa –beste herrialde batzuetatik etorritakoak barne– jomuga hartuta.

Azken garaiotan, egiaztatu dugu geroz eta gay, lesbiana, transexual eta bisexual migratzaile gehiago datorrela elkartera –gizartean gertatu izan diren aldaketa demografikoez hala eraginda–, pertsona gisa aske garatzeko inguru bila ez ezik beren gizarteratzea erraztuko duen gizarte sare bila ere. Migratzaile horietatik asko emakumeak dira.

Dibulgazio koaderno honetan, gure egungo gizarteko emakume lesbianengan imigrazioa zein modu desberdinetan gorpuztu den aztertuko dugu. Errealitate hori ezagutzeko tresna bat eskaini nahi diogu gizarte osoari, eta, bereziki, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren eta imigrazioaren alorrean lanean dihardutenei, horri esker lesbofobiaren aurka borrokatzeko, eta, ondorioz, intolerantziaren aurka eta sexu aniztasunaren alde jarrera aktiboa hartzeko baliabide bat gehiago izan dezaten.

Testu hau emakume lesbiana migratzaile ugariaren parte-hartzearen fruitua da; oztopo asko aurkitu dituzten arren, emakumeenganako maitasuna beren bizitzetan ongi xertatutako errealitate bihurtu duten emakumeena.

Bihotzez eskertzen dugu Fatima, Rosalia, Vanessa eta Lucyren eskuzabaltasuna, elkarriketatua izateko parada eman digutelako, beren sentimenduak azaldu dizkigutelako eta beren bizitzen kontakizun baliotsuak dokumentu honetara biltzen utzi digutelako.

Emakume migratzaileak Euskal Herrian

Azken hamarkadan, eta, bereziki, azkeneko bosturtekoan, andrazkoen immigrazioak nabarmen egin du gorantz. 2011ko urtearen hastapenetan, Euskal Herrian bizi ziren beste herrialde batzuetatik etorritako emakumeak 70.229 ziren (Ikuspegi@k 2011ko ekaina).

Emakume horiek administrazio egoera desberdinak dituzte: %24k nazionalitate espainiarra du dagoeneko; %59k egoitza baimena jaso du, dela erregimen orokorrean (%35ek), dela erregimen komunitarioan (%24k); %17, ordea, egoera irregularrean da. Euskal lurraldean finkatutako andrazko immigranteen erdia baino gehiago (%51) Bizkaian bizi da. Gipuzkoan, berriz, Euskal Herrian erregistraturik dauden guztietatik %30. Azkenik, Arabak euskal lurretara etorritako andrazko immigrazio osoaren %18 du.

Jatorrizko kontinentei dagokienez, erdia baino gehiago (%58) Afrikatik etorria da; eta, hurrenez hurren, Europatik (%26), Afrikatik (%11) eta Asiatik (%5). Jatorri oso anitzeko emakumeak dira, eta 20 nazionalitate baino gehiago aurki ditzakegu haien artean.

Emakumeen %62k bigarren mailako ikasketak, tarteko ikasketa profesionalak edo unibertsitate ikasketak egin ditu bere jatorrizko herrialdean. Ikasketa maila hori herrialde haietako batez bestekotik goragokoa izateak argi uzten du migrazio prozesuen selektibitatea.

Ikasketa maila horiek ez datoz bat, ordea, emakume migratzaileek euskal gizartean duten lan egoerarekin. 2011ko urtearen hasieran, egoitza baimenaren jabe ziren emakume migratzaileen ia laurdena baino ez zegoen Gizarte Segurantzako lan zerrendetan izena emanda, nahiz eta ondo baino hobeto dakigun sarritan lan merkatuaren parte badirena, ezkutuko ekonomiaren barruan. Gizarte Segurantzako erregimenean diren egoerari dagokionez, %31 etxe-langileen erregimen berezian dago. Lan sektore horrek prekaritate handia du bereizgarri, eta sektore horretan biltzen dira, hain zuzen ere, ezkutuko ekonomian lanean diharduten emakume migratzaile gehienak. Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean %59 daude, eta langile autonomoenean, %8.

Bestalde, Gizarte Segurantzaz izena emanda lanean dauden atzerriko emakumeen erdiak baino gutxiagok du kontratu mugagabea, eta dituzten kontratuak, kasurik

gehienetan, denbora partzialekoak dira (%52k du denbora partzialekoa, eta %48k, berriz, lanaldi osokoa). Lan ordainduaren merkatura horren baldintza eskasetan sartzek (generoaren gizarte-eraketak, xenofobiak eta ekonomi krisiak baldintzatuta) asko murrizten ditu lan sustapenerako aukerak, bai eta, halaber, gizarte balorazioa eta gizartean eta politikan parte hartzeko aukerak.

Emakume migratzaile lesbianak Euskal Herrian

Gaur egun ere, zail da gure herrialdera heltzen diren emakumeak lesbiana direla onartzea, ororen ustezko heterosexualitatearen lege "idatzi gabearen"¹ karietara "heterosexualtzat" jotzen baititugu. Migratzaileei harrera egin eta laguntza emateko protokoloetan, ezta haiek artatzekoetan ere, ez da sexu nahiz genero identitatea garrantzitsutzat jotzen. Okerbidez, uste izaten dugu sexu-aukerarena baino arazo garrantzitsu eta larriagoak dituztela. Horrela bada, emakume askoren lesbianismoa ezkutuan geratzen da.

Beraz, oro har, immigrazioa gogoan hartzen dugunean, diru irizpideetara makurturik egiten dugu, eta uste izaten dugu diru beharrak bakarrik bultzatuta datorrela jendea gure herrira. Bestelako arrazoiak –direla kulturazkoak, sexualak edo errepresiboak– ez ditugu kontuan hartzen.

Herrialde askotan, lesbiana izatea ez da eskubide bat, kaltea baizik. Lesbianismoa bekatutzat jo ohi da, gaixotasuntzat, desbideratze sozial edo ideologikotzat. Eta lesbianak, sarritan, beren kulturari traizio egiteaz salatzen dituzte. Areago, munduko herrialde ugarian diskriminazio horren aurkako lege asko onartzen ari badira ere, jarrera matxista eta homofoboak nagusi dira, eta horrek eragiten duen indarkeria giroak lesbianak modu berezian jartzen ditu arriskuan bizitza egin ohi duten esparruetan: etxean, lanean, gizataldean... Hegoafrika dugu oso kasu paradoxikoa: nahiz eta herrialde horretan baden herritar guztiei, haien sexu-orientazioa dena delakoa ere, eskubide zibil berberak onartzen dizkien lege bat, emakume lesbianen hilketa eta borxaketengatiko salaketak etengabeak dira.

¹ Horrekin oso hedaturik dagoen aurreiritzi bat aipatu nahi dugu, zeinaren arabera denok baikara heterosexualak, kontrakoa frogatzen ez dugun artean.



Hala bada, lesbianismoa izan daiteke, eta bada, migratzeko arrazoi bat (beti ere agerikoa ez den arren), batez ere, ezkontza zibilaren eta adopzioaren arauketetan² izandako aldaketen ondorioz gure herrialdean legezko berdintasuna lortu ondoren. Ez gabilta oso oker, beraz, uste badugu lesbianismoa beste modu batera bizi nahi duten emakumeentzat gure herrian sortu berri den egoera erakargarria gerta dakie-keela. LGBT kolektiboarentzako eskubide berdintasuna onartu zuen lege indarrean sartu ostean, haietako askok gure herrialdea aukeratu zuten bizitza hobe bat –beren sexualitatea bete-betean garatu ahal izateko leku bat– aurkitzeko eta beren jatorrizko herrialdeetan ukatu dieten onarpen soziala lortzeko.

Ugariak dira, gaur egun, populazio migratzailea zenbatzeko, haien berezitasunak zehaztu eta definitzeko, eta populazio horren bilakaera aztertzeko biltzen diren datu estatistikoak. Bitxia da, ordea, datuetako batek ere ez zerikusirik izatea sexu nahiz genero identitatearekin, eta, normalean, kolektibo migratzailea aztertzean, irizpide hori kontuan ez hartzea. Horren guztiaren ondorioz, ia ez dakigu nolakoak diren emakume migratzaile lesbianak, ez eta non dauden, zer egiten duten, non hartzen duten parte, norekin izaten dituzten harremanak, zenbat diren...

ALDARTEko kideok uste dugu pertsonen sexu orientazioari buruzko informazioa biltzea ez dela haien barruko bizitzan edo bizitza pribatuan sartzea. Sexu orientazioa eta genero identitatea bizitza publikoaren parte dira, eta zuzeneko lotura dute gizarte integrazioarekin (lan egoerarekin, administrazio eta lege egoerarekin). Gai horien inguruko informazioa biltzeak, beraz, ez du intimitatea zertan urratu. Beste galdera batzuk (nola heldu zarete, ba al duzue senitartekorik hemen, ezkontuta al zaudete, ba al duzue seme-alabarik, eta horien gisakoak) agerian egiten zaizkie, bada, uste dugu modu berean egin daitezkeela sexu aukerari edota genero identitateari buruzkoak. Horrela, tabuak saihestuko genituzke, eta, bide batez, Euskal Herrira datozen pertsonen aniztasuna onartuko.

ALDARTEn geroz eta emakume migratzaile gehiagok hartzen duenez parte, aurpegiak jartzeaz gainera, zuzenean ezagutu eta haien bizitzaz eta asmoez gehiago jakiteko aukera izan dugu. Ildo horri jarraikiz, beren bizi baldintzei buruzko zer edo zer –haiekin dugun eguneroko harremanetik ateratako informazio pixka bat– ematera ausartu gara, ez baitugu datu ofizialik:

² 2005eko ekainaren 30ean onartutako 13/2005 Legeak sexu bereko pertsonen arteko ezkontza onartzen du.

- Kopuruei dagokienez³, ez ginateke egiatik oso urrun ibiliko Euskal Herrian bizi diren 70.229 emakumeetatik %6 (4.500 inguru) lesbiana dela edo emakumeetarako joera dutela esango bagenu.
- Nazionalitate aniztasuna handia den arren, jatorrizko kontinenteena, berriz, ez da horrenbestekoa. Horrela bada, ALDARTEn parte hartzen duten emakume migratzaile gehienak latinoamerikarrak dira, eta, hurrengoak, europarrak. Ez dugu ia jatorri arabiar, asiarrak nahiz afrikarrek emakumerik ezagutzen. Hala ere, ez dugu pentsatu behar ez denik emakume lesbiana arabiar, asiarrak edo afrikarrik; aitzitik, jakin badakigu, ondo jakin ere, badirena, eta haietako asko gure herrialdean bizi direna, baina haien erkide eta erlijioetako presioek gainontzeko emakume lesbiana migratzaileak baino ezkutuagoan gordearazten dituzte.
- Gainontzeko emakume migratzaileen administrazio, lan eta prestakuntza egoera beretan dauden emakumeak dira. Deigarria da zenbateko desoreka dagoen haien heziketa eta lanbide mailen eta egiten dituzten lanen artean: ia beti ostalaritzan jardutera edota pertsonak artatzera beharturik daude.
- Haien arteko kopuru nabarmen batentzat garrantzi handia dute gizarte eta famili sareek, zein herrialdetara migratu erabakitzerakoan. Horregatik, haietako asko ez daude gure herrialdean ausaz; Euskal Herria bizitokitarako aukeratzean, badakite nora jo duten, alegia, zer aukeratu duten, iristen diren une beretik.
- Haietako askok presio izugarriak jasan behar izan dituzte beren joera lesbikoari nahiz bisexualari jarraikiz bizi ahal izateko, eta ez bakarrik gizarte eta erlijio mailako presioak, baizik eta famili presioak ere; eta horrek, maiz, beren buruak onartzeko eta nahi duten moduan bizitzeko eragozpen eta oztopoak jarri dizkie. Hala eta guztiz ere, eta borroka pertsonal handien ondoren, haietako gehienek direna izateko eta nahi duten moduan –batzuek modu irekian, eta beste batzuek emakumeenganako joera bizi ahal izateko bizitza bikoitza estrategia gisa aukeratuz– bizitzeko behar adina baliabide lortu dituzte.
- Familiek nahiz erreferentziazko gizataldeek nola onartzen dituzten ere nabarmen aldatzen da kasua zein den. Gazteenek errazago lortzen ohi dute beren lesbianismorako begirunea; adinez nagusiagoak direnek, ordea, aurkako jarrera gogorrei egin behar izaten diete aurre, ugariak baitira destainak eta erasoak.

³ LGTBren proportzioa populazio osoaren %6tik %10era bitartekoa dela finkatzen duen irizpide estatistikoa onartuta.



- Jatorrizko herrialdeak zein diren, gizataldeek eta familiek hobeto edo okerrago hartzen dituzte Emakume latindar eta europarrak onartuagoak daude. Ezagutzen ditugun musulman, asiar edo afrikarrek, berriz, arazo handiagoak dituzte erkidegoaren eta familiaren laguntza eta baliabideak –etorkinarentzat hain garrantzitsuak direnak, hala alor emozionalean nola ekonomiaren alorrean– jasotzeko lesbiana direla aitortzen dutenean edo/eta bere horretan jarraituko dutela berresten dutenean. Azken horietatik gehienek bakarrean bizi dituzte sexu orientazioaren ondorioz sortutako arazoak.
- Haien arteko askok onartzen dute gure herrialdean daudenetik beren egoera pertsonala hobetu egin dela, eta ongizate horrek zerikusi zuzena du beren aukera lesbiko nahiz bisexuala askatasun handiagoz bizitu ahal izatearekin. Egoera pertsonala hobetzea lortzen dute, beraz, baita gure herrialdera etortzera bultzatu dituen arrazoi behinena sexu aukera izan ez denean ere.
- Sarritan, haien jatorrizko herrialdeetan ezkontzera behartzen dituztenez, seme-alabak izaten dituzte; seme-alabetako asko beren amekin eta haien emakumezko bikotekidearekin arazorik gabe bizi dira, itxuraz behintzat.
- Seme-alabak harreman heterosexualetatik sortuak dira. Oraingoz, emakume hauetako askorentzat, lagundutako ernalkuntza ez da ama izateko aukeretakoa, bide hori oso garestia baita.
- Gai honetan, deigarria gertatzen da emakume hauetako askok, beren jatorrizko herrialdeetan bezala harrera egin dieten herrialdeetan ere, senitartekoen kargak eta mantenua beren bizkar hartzea. Sarritan, horrek esan nahi du ordu asko eman behar dituztela lanean, beren egitasmo pertsonalak bazter utzita.
- Gutxi batzuk izan ezik, gainerakoak ez dira "girora" hurbiltzen, eta ez dute beste herrialdeetako lesbianeekin harreman handirik. Gizarte sare lesbikoak beren nazionalitateko edo mugakide diren nazionalitateetako emakumeekin ehuntzen dituzte.
- Gehienek ez dute ia ezagutzen LGTB elkartegintza-ehuna, ezta hartan parte hartzen ere.

Ondoren, Fatima, Rosalia, Vanessa eta Lucyren kontakizunak eskainiko ditugu. Guztiak dira ALDARTEko partaide, eta agerian bizi dute lesbiana edo bisexuala izatea, nahiz eta, ondoren ikusiko dugun bezala, ondo kostata lortu duten.

Vanessa eta Lucy

Vanessak 16 urte ditu, eta Lucyk, 18. Brasildarra bata, Honduraskoa bestea. Ez dituzte beren buruak lesbianatzat, bisexualtzat baizik. Gaur egun, bikotea osatzen dute, eta oso zoriontsuak dira.

Vanessa merkataritza ikasketak egiten ari da Lanbide Heziketako Zentro batean, eta, gaur gaurkoz, ez du oso argi zertan egin nahi duen lana. Ama Euskal Herrian zuelako etorri zen bertara, familia elkarbiltzeko programaren bitartez. Ongi zegoen Brasilen, eta ez zuen hona etorri nahi. Duela bi urte hona heldu zenean, ez zuen hemengo berririk; esate baterako, ez zekien euskara bazenik ere, eta telebista piztu eta euskaraz lehenengo aldiz entzun zuenean, guaraniaren hurbileko hizkuntza bat zela pentsatu zuen.

Orain, Vanessa gustura dago Bilbon: beste gauza batzuen artean, bere jatorrizko herrialdean baino askatasun handiagoa duelako; han, esaterako, neska baten eskutik zebilenean, jendea begira geratzen zitzaien, eta iseka egiten zieten; Bilbon horrelakorik ez zaiola gertatzen dio.

Lucy ere ikaslea da, eta, Lanbide Heziketako Zentro batean ikasketak amaitu eta gero, erizaintza ikasteko asmoa du. Asteburuetan egiten du lana, eta pozik ari da. Duela bi urte hartu zuen Euskal Herrian geratzeko erabakia. Hainbat arrazoik bultzatu zuten horretara: batetik, ama hemen du, eta denbora gehiago eman nahi du harekin; bestetik, itzuri egin nahi die Hondurasen dituen arazo pertsonalei. Horrezaz gainera, Euskal Herrian aukera gehiago ditu ikasi eta lana egiteko. Denbora luzexko bat herrimez igaro ondoren, bai eta han utzitako harremanaren minnez ere, orain Bilbon ongi dabilela eta emakumeekiko harremana askatasun handiagoz bizi duela dio. Hondurasen ezkutuan bizi behar zituen beste emakumeekin zituen harremanak. Bizileku txartela dauka, eta haren asmoa nazionalitate espainiarra eskatzea da, bere amak egin duen modura.

Haien familia biek dakite beste neska batzuekin harremanak dituztena, eta, gaur egun, biek sentitzen dute begirunea dietela eta amek ondo tratatzen dituztela, nahiz eta hasieran kostatu egin zitzaien beren alabak beste neska batzuekin zebiltzala onartzea.

Bere burua oso lagunkoitzat du Vanessak, eta beste herrialde batzuetako eta hemengo neska lesbiana asko ezagutzen ditu; Lucyk, berriz, ez du harremanik euskal neska lesbianekin, hemen bi urte besterik ez daramatzalako eta duela gutxi irten delako armairutik. Ezagutzen dituen lesbiana gehienak latindarrak dira.

Giroko lekuei dagokienez, Vanessa usu joaten da, eta asko ezagutzen ditu; batez ere, lesbiana gazteak biltzen diren horiek. Lucyk dio giroko leku bat baino ez duela ezagutzen.

Bietako batek ere ez du gizarte-kultura, kirol nahiz politika eremuko elkarteetan parte hartzen. ALDARTEz gainera, ez dakite beste LGTB elkarterik ba ote den.

Fatima

Fatima herrialde arabiar batean jaio zen, 32 urte ditu, eta musulmana da. Bost urte daramatza Euskadin, eta erizaintzako diplomaduna da. Ez dago ezkondua, txikitatik ondo dakielako zer duen gustuko, eta ez ditu onartu bere familiak ezkontzeko proposatu dizkion senargaiak. Helduentzako egoitza batean egiten du lana, Bilbotik hurbil, eta oraingoz ez du nazionalitate espainiarra eskatzeko asmorik. Nahiz eta lan baldintzak hobetu nahiko lituzkeen, ez da kexu bere lanaz.

Askatasun bila etorri zen Euskal Herrira, ongi bai baitzekien bere senari eta izaerari jarraikitzen bazitzairen hil egin zezaketela. Euskal Herria aukeratu zuen askatasuna aintzakotzat hartzen duen leku bat dela iruditzen zaiolako, eta bera bezala lesbiana diren emakumeak daudelako eta beldurrik ez dutelako.

Bere herrialdean, Fatimak ezin zuen harreman zuzenik izan beste emakume batzuekin, gutxi direlako gizonak (dela senarra, dela neba) lagun ez dituzten leku publikoak. Gustuko zituen emakumeei ezin zien hitzez eta aurrez aurre adierazi haiek sentiarazten zioten guztia, ezta haiengandik zer nahi zuen ere. Hortaz, isilpean egiten zuen neskatan, gustuko zituen neskei gutunak helaraziz. Haiek baietz ala ezetz erantzuten zioten Fatimak proposatutakoari. Gehienetan, Fatima eta haren bikotekideek denbora gutxi izaten zuten harremanetarako, eta ezkutuan elkartzen ziren: kalearen ilunetan nahiz herriko aldirietan, amek beren lagunekin kafea hartzera joateko alabak bakarrik uzten zituztenean edo senarra kanpoan zenean.

Beraz, Fatimak edozein momentutan eta oso denbora laburrean izan behar zituen harremanak, eta, senarrak ustekabean harrapatzen zituztenean uste baino lehenago etorri izanagatik (noiz edo noiz gertatu izan zitzairen), kafea prestatzen edo lotan zeudelako plantak egin behar izaten zituzten (horrelakoren bat gerta zitekeelakoan, aldez aurretik prestatzen zuten kafearen bandeja). Egoera horretan, Fatima harreman arin, labur eta egonkortasunik gabeak izatera behartua zegoen.

Zenbait urte iraun zuen harreman bat izan zuen Fatimak, baina bikotekidearen amak harremanaren berri izan zuen, eta alaba ezkontzera behartu zuen, familia ez lotzarazteko eta jendea ez zedin hartaz mintzo.

Hemen, Euskal Herrian, Fatimak ez du zertan topa-une labur eta harreman arinik izan. Orain, "hogeita lau ordu baino gehiago egon naiteke ohean, nahi izanez gero" dio, bai eta biluztu ere. Hori ez zuen bere jatorrizko herrialdean egiterik, ezustean harrapa zezaketen eta. Nahi izanez gero, emakume batekin egin dezake lo ohe berean.

Euskal Herrira heldu zenean, Fatima oso beldurturik zegoen: beldurrik handiena Jainkoak ematen zion, gero gizonek, eta, azkenik, familiak eta lagunartek. Txikitan esana zioten Jainkoak zigortu egiten dituela bere modukoak diren emakumeak. Ez dute ulertzen Fatima bera Jainkoagandik jaioa dela, eta Jainko hori bera dela horrela egin duena, berak ezin duela beste era batekoa izan eta errespetua zor diotela. Senitartekoek uste dute homosexualitatea gaixotasun bat dela, edo Jainkoak ezarritako zigor bat. Fatimak Betidanik egin du lana familia diruz lagundu ahal izateko, baina seguru dago lesbiana dela jakingo balute, haientzat hutsaren hurrengo bihurtuko litzatekeela, eta familiaren lotsaizuna izango.

Fatimak dio bere herrialdean ezin duzula "pizti arraro bat izan. "Ezkondu eta seme-alabak izan behar dituzu, emakume izango bazara, behintzat". Horrela, bada, emakume lesbianak ezkutatu egin behar dira, ezin dute direna agerian jarri, eta Jainkoaren kontra dihardutelako sentimenduarekin bizi behar dute.

Fatimarentzat oso zaila izan da herrialde musulman batean jaio eta biziitzea. Garai batean, etorkizunik ez zuela uste izan zuen, bere herrialdean hilko zela, izan nahi zuena izatera -alegia, beste emakume batzuk modu irekian maite dituen emakume izatera- iritsi gabe. Bizitza bikoitza, bakardadea eta depresio etengabeak izan dira haren bizitzaren ardatza. Beste herrialde batzuetan emakume lesbianak aske bizi zirela eta berak ere noizbait horrelako bizitza bat izan zezakeela jakiteak eman zion aurrera jarraitzeko adorea eta esperantza.

Bost urte igaro dira Fatima gure herrialdean bizi denetik, eta askatasun handiagoa lortu du. Uste du dagoeneko kendu duela iritsitakoan zuen beldurra, neurri handi batean behintzat, eta adierazi du jende askok lagundu diola bere eskubideen alde borrokatzen eta momentu oro sentitu duela ingurukoen laguntza. Oso harritu zuten ALDARTERen gisako lekuek, non emakume lesbianak lasai solas daitezkeen, eta elkarri gogoetak, po-



zak edo beldurrak agertu. Orain, beste emakume batekin etorkizuna eraikitzea baduela pentsatzen hasia da.

Euskal Herrian, Fatima usu ibiltzen da neskatan: askatasun handiagoa duenez, bizitza bete-betean bizi nahi du, eta zenbait nazionalitatetako emakumeekin izan ditu harremanak, baita beste emakume arabiar batzuekin ere. Arabiarrei kafea hartzeko gonbidapena egiten die, eta haiak, askeago sentitzen hasten direnean, emakumeak atsegin dituztela aitortzen diote, baina senarrekin daudela Jainkoak zigor ez ditzan, errefusaren beldur direlako, bakarrik geratzeko beldur.

Euskal Herria oso gustuko duen arren, oraindik ere penaturik dauka horrenbeste maite duen herrialdea, jendea, familia... dena utzi behar izanak, eta, hori guztia, erlijioaren kausaz eta bera den moduan eta izaten segitu nahi duen moduan errespetatzen ez dutelako.

Rosalía

Perun jaio zen duela 49 urte. Batxilergo ikasketak (bigarren mailakoak) egin ditu. Albaitaritzako ikasketak egin nahi izan zituen, baina gizonentzako ikasketak zirelako aitzakia baliatuz, ez zioten horretarako laguntzarik eman. Orduetik, lanean aritu da, handik irten eta beste herrialde batzuk ikustera joan ahal izateko. Euskal Herrira heldu zenetik, ume-zain jardun du. Pozik eta gustura dago egiten duen lanarekin. Kontratua sinatua du, eta gizarte segurantzian kotizatzen du. Jasotzen duen lansaria urria dela eta egiten duen lan piloarekin bat ez datorrela uste du. Ez dago ezkondata, eta ez du seme-alabarik. Bizileku txartela dauka, eta nazionalitate espainiarra eskatzeko asmoa du.

Peruko ekonomi egoera oso larria eta gogorra zenez, 2004an Euskal Herrira etorri zen, han lanik ez zegoelako eta bere asmoa beste etorkizun bat lantzea zelako. Bilbo zuen helmuga, bertan hainbat urte zeramatzan ahizpa bat zuelako. Ez zen lesbianismoa izan Perutik irtetere bultzatu zuena. Bultzagarri indartsuagoak izan zituen: ahizparen bakardadea eta gurasoak laguntzeko etxera dirua bidali beharra. Ez daki betiko geldituko ote den, baina nahiko luke berriro ere Perura itzuli, txango bat egiteko besterik ez bada ere.

Oso familia jainkozalea du. Ez dute haren lesbianismoa onartzen, eta seguru dago ez dutela sekula ere onartuko. Oso txikitatik jakin du lesbiana dena, eta gogoan du uko egiten ziela beti nesken jantziei eta futboleko aritzea zuela gustuko. Artean, go-

gor egiten zuen sentimendu haien kontra, ez zituen onartu nahi. Gauza bera sentitzen duen beste ahizpa bat dauka; hura ezkondu egin zen, etxetik irteteko. Seme bat izan zuen, eta, orain, kalean dabil edanean. Ahizpak gizona izateko itxura du; ez da ordea "trans". Lesbiana da, eta "jendaurrean agerrarazi egiten du". Gainerako ahizpek hartaz gaizki esaka jarduten dutenean, Rosaliak min hartzen du, hura ere ahizpa izateaz gain, biek egin dutelako sexu-aukera bera.

Ezkontzeko aukerak izan dituen arren eta horretara bultzatu duten arren, ez du horrelakorik egin. Hala ere, ez du uste ezkontzari uko egitea lesbianismoaren ondorio denik, senargaia zuen garaian gogor borrokatzen baitzen sentimendu lesbikoen aurka. Beste emakumeen hurbiltze saio guztiak arbuiatzen zituen, bere buruari esanez horretan jardutea oso gaiztoa zela. Garai hartan bere izatasuna onartzeari eta senitartekoei eta gainerakoen iritziei aurre egiteari beldur handia izan ziola dio.

Argentinara nahiz Brasilerara bidaiatzen hasi ahala hasi zen bere izatasuna onartzen, lesbianismoa modu liberalagoan bizi zuten herrialdeak baitziren haiek. Perura itzultzean, kirol klubetan parte hartzen hasi zen, eta han, neska lesbiana gehiago ezagutu zituen.

Euskal Herrian bizitza hobea lortzen ari dela sentitzen du, egoera pertsonala lasaiago bizi du eta Rosaliak. Lesbianismoa askatasun handiagoz bizi dezakeela sentitzen du. Perun, ezkutuan ibili, eta bizitza bikoitza eraman behar zuen. Hemen, berriz, askatasunez ager dezake bere burua. Han, jende asko dago armairuan sartuta, eta kosta egiten zaie irtetea. Bilbora etorrira ere homosexualitatea ezin jendaurreratu duten gay eta lesbiana perutarrek badaudela dio.

Rosaliak uste du duen adinarekin ez duela ezina lortzerik izango. Hobeto bizi da, senitartekoez bera onartzen ez duten arren. Lehen, familia zen bere bizitzaren helburu bakarra. Orain, ordea, beste gauza batzuk ditu gogoan: bere bizitza bizitzea tokatzen zaiola sentitzen du, eta inork ez dio zer egin behar duen esan behar. Bost axola dio jendea bere kontura marmarrean aritzea, edo hatzaz seinala dezaten. "Paso egiten dut" dio, "gorriak ikusi ditut eta".

Rosaliak dionez, Perun, "emakume bat lesbiana bada, ilea mozten du, eta gizonen modura jantzen da, eta, Euskal Herrian ere, emakume latindarrek joera hori bera dute". Badirudi Rosaliak ez duela oso gustuko "look" hori; berari andrazko itxura gustatzen zaio, baita margotzea eta ilea apaintzea ere. Lesbiana izateak ez darama berekin gizona izateko itxura agertzea: ez du bere andrazko itxura aldatu nahi. Normalean gai honi

buruzko eztabaidarik izaten ez duen arren, gogoan du behin Perun "marikoi" esan ziotela. Perun, horrela deitzen diete "gizon peto" edo "ar peto" (marigizon lesbiana) direla uste dutenek andrazko itxura nabarmena duten lesbianei.

Rosaliaren ustez, bere inguruan eratzen diren bikote lesbikoetan, kideetako bat "gizonezkoa" eta bestea "andrazkoa" izateko joera dago. Horren harira dio gizon itxurako bi neskez osatutako bikotea bi neska "femeninoz" osatutakoa baino nekezago onartzen dela. Era berean, gaizki ikusia dago, bi neska "femeninoz" osatutako bikotea hausten denean, bietako batek "gizonezko itxura" agertu eta "andretxo" (hots, andrazko itxurako lesbiana) bila ibiltzea.

Rosaliak Bilboko giro lesbikoa ezagutzen du, baita euskal lesbianak ere. Hala ere, bere gizarte-sare lesbikoa emakume latindarrekin ehundu du gehien bat, kirolaren bitartez lotzen baititu jendearekin harremanak eta parte hartzen duen taldeetara emakume latindarrak biltzen baitira gehien bat, eta ez Euskal Herrikoak. Halatan, lesbiana latindar askorekin ditu harremanak, eta, berak dioskunez, kirol giro horretan, gehienak halakoak dira; areago, harremanak izan dituen estatu espainiarreko futbol talde guztietan lesbianak erruz daudela segurtatu digu. Emakume horietako askok beren lesbianismoa zabal-zabalik bizi dutela adierazi digu, eta ez dituztela beren senitarte-koekin berak izandako arazoak bizitu.

Rosaliak ez daki, zehatz-mehatz, zergatik ez diren lesbiana latindarrak girora biltzen ezta gehienek zergatik ez dituzten leku horiek ezagutzen. Agian, dio, izan daiteke "irtetea kosta egiten zaielako, egunerokoari aurpegi ematea, datorrenari aurre egitea, oztopoak gainditzea..." . "Ni izan naiz kuxkuxean aritu naizena... zaila da leku horietara hurbiltzea. Burutik pasatu ere ez zaigu egiten girora arrimatzea; hortaz, diskoteka latindar batera joaten gara; han, gizonezko euskaldun asko egon ohi da, eta, sarritan, haiek gu limurtu nahi, eta guk altoa eman behar, gauza dira-eta gure arteko marimutilik marimutilenaz maitemintzeko, haren aurpegitxoa dela eta..."

Era berean, hemengo neskez eta neska latindarrez osatutako bikote gutxi ezagutzen ditu; oro har, ezagutzen dituen bikote egonkorxeagoak latindarrez osaturikoak dira, nazionalitate berekoak ez badira ere. Ez du uste horren azpian arrazozi berezirik dagoenik; gustuentzat, koloreak: latindarrak ez dira bertan goxo geratzen, eta, irteten direnean, ez dute bertokoekin topo egiten, haiek ez baitira latindarrak doazen lekuetara joaten. "Eta hori besterik ez da".